

ABADEA: NOR ETA ZERTARAKO?

0. Sarrera

1. Zer da abadea?

1.1. Oparia

Jesukristoren oparia

Nor bere eskeintza eta alkartearen parte hartzea

Jainkoaren tresna

Espirituaren dohaia

1.2. Besteentzako oparia

Elizarentzat eta gizon-emakume guztientzat

Zerbitzeko oparia

Behartsuenentzako oparia

Misiorako oparia

Alkartearekin bat

Beste zerbitzariekin bat

Beste abadeekin bat

Gotzainarekin bat

1.3. Opari berezia

Zerbitzari berezia

Alkartasunaren zerbitzaria

Zerbitzarien zerbitzaria

1.4. Ebanjelioko atal baten argitan: Jn 21,1-22

2. Nor da abadea?

Artzain Onaren irudia

Alkarte ebanjelizatzailearen zerbitzaria

2.1. “Iragarri Jaunaren Hitza... zeure pazientzia guztia erabiliz”

(2 Tm 4,2)

Jainkoaren Berbearen zerbitzaria

Misioaren zerbitzaria

Teologiako formazioa

2.2. “Jainkoaren asmo ezkutuen administrariak”

(1Ko 4,1)

Sakramentuen zerbitzaria

Adiskidetasunaren zerbitzaria, bakegilea

Sakramentu bezala, erakusle eta estaltzaile

Jabe barik, administratzailea

2.3. “Larratu egizue Jainkoak zuen esku jarri dauan artaldea”

(1Pe 5,2)

Alkartean eta bere aurrean

Bidelaguna

Egoten ikasi

Aitatasuna

Misiolaria

Amaitzeko

Sarrera

Zer da abadea? Zein da bere zeregina? Zer dauka beste edozein kristauk ez daukanik? Nor da abadea? Bokazio Pastoraltzaren ardura dabenek, abadearen nortasuna neurri batean zehaztu, argitu eta aurkeztu egin gura dabe lantxo honen bidez. Hitz gutxitan laburtu nahi izan da aurreko itaunen erantzuna.

Asmo hau abadelagunei agertuaz batera, lan honetan baliagarriak izan diran adierazpenok agertu ziran:

- a) “Zeure esperientzia ere agertuko dozu, ez?": horrelako zerbait badago egon, nahiz eta nahia eginaren aurretik ibili.
- b) “Ea zelan agertzen garen abadeok!": praktika ere jaso nahi da, ikusi ahal dan neurrian.
- c) “Ez luzatu teologiazko erretolikan!": teologia sistematikoki ikasi ez dauanak ere ulertzea nahi da. Horretarako, ahal dala, teologian sarritan erabiltzen diran hitz potolo edo astunak nekez agertzen dira.
- d) “Teologia erraz-erraza behar dogu!": ez da lan samurra, horretarako gehitxoago jakin eta bizi behar izaten dalako. Baina, halan ere, ahaleginak merezi dau.

1. Zer da abadea?

1.1. Oparia

Jesukristoren oparia

Abiapuntua Jesukristogan dago. Beste edozein kristau bokaziotan lez, nor bere balioa edo gaitasuna garrantzitsua da, baina ez da oinarria. Misioaren premiak ere ikaragarriak izan daitekez, baina ez dira guztiz erabakiorrak. Abadearen hondoa Jesukristori lotuta doa oso osoan. Abadearen maitasuna aurreragoko maitasun bati emondako erantzuna da. Opari bihurtzen da, oparia hartu daualako.

Sarritan entzuten da “abade izateko –beste edozertarako lez– bokazioa euki behar dala”. Jakina! Baina bokazioa ez da nor berak daukan ondarena, dohan hartutako maitasunari emoten jakon erantzuna baino. Bokazioaren jabeak barik, zordunak gara.

Aurrekoak zera esan gura dau: abade izatea ez dala lehenengo zeregin edo zerbitzu batzuk betetzeko, nahiz eta horren behar handia izan. Abade bokazioaren iturria ez da zeregina, Jesukristo baino. Oso pobrea litzateke abadearen premia sentitzea, berak (gehienbat sakramentuen arloan) alkartean egiten dauanagaitik edo egin daikenagaitik bakarrik.

Behin baino sarriagotan entzuten da: Zer egin daike abadeak, alkartean beste inork egin ezin daikenik?” Lanak eta zereginak banan-banan aztertuz, apenas aurkituko geunke erantzunik. Abadearen berezitasuna eukaristiako konsagrazioan eta pekatuak parkatzean geratuko litzateke. Horretarako hainbeste buruhauste?

Nor bere eskeintza eta alkaratearen parte hartzea

Nor berak hartzen eta lantzen dauan deia da erabakiorra. Baina horrek ez dau esan gura, bokazioa Jesusekin bakarrik edo “mani-mano” jokatzetik dani. Nor bere giza, kultur edo eliz inguruneak badau zer esanik ere. Hortxe bilatu eta aztertu behar da Jainkoaren deia.

Horrela ulertu daiteke hobeto, abade izateko aukera kristau alkarateak edo arduradunen batek aurkeztu daikiola norbaiti: “Hara, egoera aztertu ondoren, kristau alkarateak abadea behar dau eta, gure ustez, zeu izan zaitkez”. Planteamendu hau sarritan erabiltzen da beste eliz zerbitzu batzuetarako laguntzaileak edo lankideak behar diranean. Abadearen kasuan horrela jokatzetik dauan alkarateak bere heldutasuna erakusten dau eta misioaren ardura dauala adierazten.

Jainkoaren tresna

Kristau alkarateek Jainkoaren erregalu lez hartzen dabe abadea gehiengotatik, bere muga eta guzti. Gaur egun abade gutxi egoteagaitik ere izan daiteke hori, baina, egia esan, alkarateetan oso estimatuak dira abadeak. Jainkoaren dohaia dira. Ez da hori abadeen ezaugarria bakarrik, jakina, baina bere izate edo nortasunarekin estu lotuta doa: Jainkoa da bere bizitzaren jaun eta jabe.

Gizon eta emakume guztiak dagoz Jainkoaren irudira eginak eta arrasto edo kutsu jainkotiarrak dabe. Bateoari eskerrak, edozein kristauk bereganatu daikez honako berbok: “Neure seme edo alaba maitea zara zu”, “Zu neurea zara”. Abadearengan aparteko oihartzuna dabe hitzok.

Horrelako zerbait adierazo nahi izan da, bateoak, sendotzak eta abade-tzak, bakoitzak bere neurrian edo bere erara, “marka” bat emoten dabela esatean. Hau da, markatu edo seinlatu egiten dabe sakramentua hartzen dauana. Zelibatoaren bidez ere, honelako zerbait adierazo nahi izan da. Abade izatea eta zelibatoa ez dira beti alkarri lotuta joan eta derrigor joan beharrik ere ez dauke berez. Baina senidetasun handia dabe batak bestearekin.

Espirituaren dohaia

Eliza Espirituaren eraginez sortzen eta hazten doa. Espirituak bultzatzen dau alkartea, sasoi eta toki bakoitzean ebanjelizatzeko biderik egokienak bilatzen. Abade zerbitzua betetzeko erak ere Espirituaren eraginez agertzen eta garatzen dira. Beronek sortarazten eta erabarritzen ditu era guztietako bokazioak, beronek gaurkotzen dau kristauen eta alkarteen testigantza, Barri Ona zabaltzen joan daiten.

Abade asko egoteak ez dau beste barik esan gura Espiritua lan sendoa egiten diharduanik. Espirituaren dohaiak ez dira zuzenean kopuruarekin edo nor bere edo alkartearen nahiarekin lotu behar.

Batek baino gehiagok uste dau, gaur Espiritua “lotan“ dagoala edo Elizak ez deusola jaramon handirik egiten. Horrela ete da? Ez ete dabil gaur Espiritua ebanjelizatzeko era barriak bultzatzen edota Eliza egokitzen, gaurko kulturaren Ebanjelioa egokiago erein daian? Abadeak gutxituz, ez ete ditu eliz zerbitzuak erabarritu eta misio lanak sendotu nahi?

1.2. Besteentzako oparia

Elizarentzat eta gizon-emakume guztientzat

Abade izatea opari ederra da nor berarentzat, abade danarentzat, jakina, baina baita Elizarentzat eta, honen bitartez, mundu zabaleko gizon eta emakume guztientzat, batez ere behartsu eta minberatuenentzat. Hau ez da dana “elizaratu” nahia, Jainkoaren salbamena guztiei zabaltzeko asmoa baino.

Zerbitzeko oparia

Abade bokazioak goitik behera hartzen dau pertsona. Baina opari hori ez da nor berak gordetzekoa, besteen zerbitzuan jartzekoa baino, besteek “erabili” ahal izan daien. Oparia izanik, ardura edo enkargua ere bada. Abadetza ez da batez ere nor berak bizimodu santua erodateko bide bat. Hori gero dator. Abadea alkarteari begira dago.

Aspalditik dagoz galerazota Elizan “ordenazio absolutoak” diralakoak, hau da, pertsonaren ohore edo probetxu hutserako, alkarte zehatz baten zerbitzuari lotu barik emoten ziranak.

Behartsuenentzako oparia

Gutxien daukenentzat eta gutxien diranentzat da oparia lehenengo. Maitasun edo bihotzondo pastoralak da abadearen bizitza eta ekintza bateratzen dituana. Artzain Onarekin izan behar dauan lotura adierazten dau horrek, bere bizitza alkartearen zerbitzuan erretzeko, batez ere kiderik behartsuenen alde.

Meza erdian abadeak Jesusen berbak gogoratzen dituanean –“hau neure gorputza da”–, Jesusen azkenerainoko eskeintza gaurkotzen dau; baina, horrekin batera, bere buruaren eskeintza ere adierazten dau, alkartearen alde eta bertako pertsona makalenen alde.

Meza erdiko berbok abadearen ahoan honako esanahia ere badabe: “hemen nozue oso-osorik zuon zerbitzurako”. Zelibatoa abadetzarekin lotuta joateak ere zentzu bardintsua dau. Izan ere, maitasunik ezak jota dagozanak beren-beregi maitatzeko karisma da zelibatoa.

Misiorako oparia

Ikuspegi horretatik ulertzen da hobeto abadearen misio lana ere. Prest egotea eskatzen jako, beharrezanean dagozan alkarteei zerbitzeko eta bere kristau esperientzia eskeintzeko.

Lehen aitaturako “ordenazio absolutoak” ulertezinak badira ere, alkar-te bati askaezinik, behin betirako lotuta egotea ere ez da ulerterraza. Hone-tan ere, beraz, larregi eta gutxiegi, biak kaltegarri.

Alkar-tearekin bat

Abade izateak ez dau alkartetik urruntzen, bestetara baino: alkar-tearen barru-barruan sartzen dau pertsona. Alkar-tea da, hain zuzen, abadearen bizi-tza legea, bere bihotzeko grina. Alkar-tea da bere nekea eta ardura, baina baita bere poza eta atsegina ere.

Berba potoloagoekin esaten da hau teologian: abadearen izaera “kristo-zentrikoak” (Kristoren izenean ekiteak) “eklesiozentrikoa” (Elizaren ize-nean ekitea) eskatzen dauala. Kristorekin bat egiteak bere jarraitzaileekin bat egitea eskatzen dau.

Beste zerbitzariekin bat

Abadearen zerbitzua edo ministerioa Espirituak Elizari emondako beste opari batzuekin lotuta doa. Abadearena ez da zerbitzu bakarra. Espirituaren indarrez soturiko beste hainbat karisma, zerbitzu eta ministerio dago, alkar-tearen onerako.

Gaur egun gero eta argiago ikusten da, batzuetan sano kosta arren, laikoekin eta bizitza konsakratua dabenekin hartuemonetan landu behar dauala abadeak bere eliz nortasuna. Kristau alkar-tean ez dagoz, beraz, alkarren pa-reko dohaiak, alkarren onerakoak eta Eliza osoaren onerakoak baino.

Azkeneko gizaldietan, eliz ardura guztiak abadearen eskuetan gelditzen joan izan dira. Baina Vatikanoko II. Kontzilioak, Eliza Jainkoaren Herri eta komunio lez azaltzean, ministerio eta karismen pluraltasuna edo aniztasuna bultzatu eban.

Gaur egun ezin da ulertu abadearen ministerioa beste zerbitzuetatik aparte, abadeak bere kasa ekiteko eskubidea baleu lez. Gizartean ere argi ikusten da, pertsona eta taldeen nortasuna pluraltasunean lantzen dala eta ez bakardadean. Elizan ere antzera pentsatu daiteke: bokazio eta zer-bitzu bakoitzaren nortasuna aniztasunean lantzen doala.

Beste abadeekin bat

Ordenako sakramentua hartzen dauana talde edo alkargo baten barruan kokatuta gelditzen da berehala. Hau da, abadeak ez dau bere zeregina bere kontura edo bakarrik betetzen, ez eta alkarte txiki bati lotuta bakarrik. Hartutako sakramentuaren bitartez, bere elizbarrutiko abadeen eta, horren bidez, Eliza osokoen anaia da.

Hain zuzen ere, “presbiterio” eta “eliza” hitzak, jatorrian giza taldea edo alkargoa adierazo izan arren, toki bat izendatzeko erabili eta ulertu izan dira gehienetan. Izan ere, “presbiterioa” esatean, aldarearen ingurua adierazo nahi izaten da, hortxe kokatzen ziralako presbiteroak edo abadeak.

Baina bere jatorrian, abadeen alkargoa zan presbiterioa. “Eliza bateko presbiterioa” aitatzean, beraz, biak ulertu daitezke: tenpluan dagoan toki bat edo alkartearen zerbitzuan dagoan abade talde bat.

Elizbarruti bakoitzeko Abade Kontseiluak eta ardura pastoralak alkarrekin landu eta aurrera erodateko egiten diran abadeen batzarrak zera adierazo eta indartu gura dabe, hain zuzen: abadeen alkargoaren alkartasuna.

Honek beste ondorio batzuk ere baditu: esaterako, alkarrekin bizi izatea, elizbarrutiko abade guztiak soldata bardintsua izatea, ardurakidetasuna Elizan edo alkarri laguntzea.

Gotzainarekin bat

Azkenik, abadearen zerbitzua gotzainarenarekin estu-estu lotuta doa. Izan ere, gotzainarengandik hartzen dau abadeak ordenako sakramentua eta, horrela, gotzainaren laguntzaile berezi lez izendatuta gelditzen da.

Lotura horren adierazpen lez, Vatikanoko II. Kontzilioak “sacerdos” hitza, gotzainak eta abadeak, biak batera izendatzeko erabiltzen dau gehienbat. Horrela, bai gotzainak eta bai abadeak daben abadetza bakarra adierazo nahi izan eban.

Gaztelaniaz abadeari “sacerdote” ere esaten bajako ere, Kontzilioaren esanetan, gotzaina ere abadea da. Euskeraz “abadea” esatean adierazo nahi dana, “presbiteroa” da Kontzilioaren esanetan.

1.3. Opari berezia

Eliza edo alkarteko zerbitzu eta ministerioen artean, abadearena bat gehiago ete da, beste barik? Ba, hara: bai eta ez.

Zerbitzari berezia

“Ministerio” hitza eliz zerbitzu berezi bat adierazteko erabiltzen da. Hau da, ministerioak zerbitzuak dira beti, baina ez bestetara. Zerk emoten deutso zerbitzu bati ministerio maila? Alkartearen bizitzarako eta etorkizunerako dauan garrantziak, ardura mailak, iraupenak eta alkartearen aurrean publikoki (normalean, elizkizun baten) emotek. Ministerioak, beraz, –abadearena tarteko– maila jaso bateko zerbitzuak dira.

Esanda dagoanez, abadearena Espirituak alkarteari emondako dohai bat da, beste batzuekin batera. Zentzu horretan, ba, abadetza beste batzuen artean doan dohaia da, beste barik.

Alkartasunaren zerbitzaria

Dana dala, abadearena oso zerbitzu berezia da: nahitaezkoa da kristau alkartearen bizitzarako, lehendakaritzari lotuta doa gehienetan eta bizitza osorako emoten da, ordenako sakramentuaren bitartez. Alde hortatik, ba, ez da ministerio bat gehiago, beste barik.

Gotzain eta abadeen ardurapean dago kristau mezuaren jatortasuna zaintzea eta indartzea. Horrexegaitik esaten da zerbitzu hori ezinbestekoa dala alkartearentzat. Bere berezitasuna honetan datza: beste zerbitzu, ministerio eta karismak alkartzen laguntzean.

Apostoluen aldietan sortu zan abadetza. Apostoluak izendatu ebezan ondorengoei ardura hau emon jaken: Barri Onaren jatortasuna zaintzea eta zabaltzea, alkartearen zerbitzari izatea misioa bultzatzea. Ministerio ordenatua laster eratu zan hiru mailatan: gotzainena, abadeena eta diakonoena, azkeneko biok, bakoitza bere erara, bestearen laguntzaileak dirala tokiko Elizan.

Zerbitzarien zerbitzaria

Ez da mailarik edo kategoriarik alperrik jarri behar. Horrelako zerbait egitekotan, azkeneko mailan jarri behar izango litzateke abadea, beste guztien zerbitzari bezela. Ebanjelioren kutsua izango leuke horrek, duda barik. Hemen esan nahi dana zera da: abadearen zerbitzua derrigorrekoa dala Elizak bere horretan jarraitu daian.

Horrek ez dau esan nahi Elizaren etorkizuna abadeen kopurutik dingilizka dagoanik, abade ugari izateak etorkizun hobea ziurtatuko baleu edo alkarte bakoitzak beretzako bakarrik abade bat behar izango baleu lez. Abade barik ez dago Elizarik, Jainkoaren Herri barik edo laiko barik ere ez dagoanez.

Beste era batera esateko: Eliza dagoan artean, egongo dira abadeak ere. Hau ez da esaldi inozoa edo boluntarista, inondik inora ere; abadegaien aukeraketari dagokio zuzen-zuzenean.

1.4. Ebanjelioko atal baten argitan: Jn 21,1-22

Dohai bereziak azterketa berezia behar dau, Joanen ebanjelioko azkeneko kapituluan ikusi daitekenez, Jesus eta Pedro protagonista dirala. Hortxe agertzen dira azterketaren alderdi nagusiak:

- Jesusek hartzen dautse aurrea beti, bai taldeari, bai Pedrori (5, 6, 10, 12, 15-19 eta 22 txataletan).
- Pedroren ardura alkartearen barruan kokatzen da. Gehiago oraindik: taldeko kide batek laguntzen deutso Pedrori Jesus ikusten (7. txatalean).
- Ardura ez doa merituari lotuta (Pedrok huts egin dau nekaldian, oso nabarmen gainera), maitasunaren testigantzari baino: *Maita nozu?* (15-17 txatalak).
- Jesusen emondako ardurak osatu egiten dau Pedro. Honek nekaldian Jesus ukatu egin dau eta lotsatuta, minduta gelditu da. Orain artzain izateko ardura hartzen dau, ez bere leialtasunagaitik, maitasunaren eraginagaitik baino (21-22 txataletan).
- Ardurak ez dau jatorriko bokazioaren tokia hartzen edo iluntzen: *Jarraitu niri!* (19 eta 22 txataletan).

Labur esateko...

Abade izatea zera da: Jesusen deia onartzea, bere maitasunaren testigu izateko kristau alkatereko beste kideekin batera, zauriak osatzeko (“besteak osatu eta horrela nor bera ere osatu”) eta Berbiztuagan sinismena sendotzeko.

2. Nor da abadea?

Artzain Onaren irudia

Labur esateko, abadeak zera gogoratzen eta ikusiarazoten dau sakramentu itxuran: kristau alkatere bere lehen Zerbitzariari, hau da, Kristori, Artzain Onari begira dagoala: “Ni zerbitzari lez nago zuen artean” (Lk 22,27).

Abadearen kasuan, bera da sakramentua, pertsona bera, hain zuzen. Hau da, Kristo “jabetu” egiten da abadeaz, argi jartzeko Bera dala alkatere bultzatu, indartu eta bidaltzen dauana. Abadearen buru izateak zera gogoratzen deutso alkatereari: Kristo dala bere benetako burua. Liturgian ikusten da hau argien.

Bateo eta sendotza sakramentuen indarrez, kristau guztiak dira Jesukristoren testigu eta sakramentu, neurri batean bere “ordezkoak”. Abadearen berezitasuna hauxe da: sakramentu lez eratuta dagoala alkaterean, Kristoren lehendakaritza agertzeko. Ez da, beraz, alkaterearen ordezkari bat beste barik, Kristoren “tresna” baino, alkaterearen zerbitzurako. Horixe da ordenako sakramentuaren esanahia.

Eliza Kristoren gorputza da eta hor batasun bat adierazten da, baina Kristo eta Eliza ez dira gauza bat bera. Batasun eta ezbardintasun horren antzekoa bizi dau abadeak ere: alde batetik, alkaterearen kidea da; beste alde batetik, alkaterearen parean dago, Kristoren lehendakaritza agertzeko.

Berezitasun honek ez dau esan nahi abadea alkaterearen jauna danik ez eta jauntxo lez jokatu behar dauanik ere. Azken baten, hauxe adierazogura da: Jesus dala Eliza osoaren eta bere alkatere guztien Jaun bakarra.

Alkarte ebanjelizatzailearen zerbitzaria

Lehenengo ebanjelizatzailea Jainkoaren herria da, kristau alkarteetan banatuta. Herri hori da Kristoren Gorputza toki bakoitzean, Vatikanoko II. Kontzilioak esan ebanez: “Komunitate hauetan, nahiz eta batzuetan txikiak eta pobreak izan edota sakabanaturik bizi, hantxe dago Kristo, honen indarrez biltzen baita Eliza, bat, santu, katoliko eta apostolikoa” (LG 26).

Alkarteotan, abadea zera da: alkarteak Ebanjelioaren testigantza sinesgarria emoteaz arduratzen dana, fedea bizkortuz, bultzatuz eta landuz.

Gotzain eta abadeen zerbitzua beti dago alkartearen misioa indartzeari begira. Hori zehazteko, hiru aditz (irakatsi, santutu, larratu) edo hiru irudi (maisua, abadea, artzaina) erabili ohi dira. Hiru alderdiok bereiztu daitezke, baina bata besteetatik askatu barik.

2.1. “Iragarri Jaunaren Hitza... zeure pazientzia guztia erabiliz” (2 Tm 4,2)

Jainkoaren Berbearen zerbitzaria

Apostoluaren lehenengo zeregina Ebanjelioaren barri emotea da: “Errukarria ni, Barri Ona iragarriko ez banau” (1 Ko 9,16). Eta barri emon (iragarri eta salatu), testigantzaren bitartez egiten da lehenengo.

“Kristau” izena bera ere kristau ez ziranak emona izan zan: “Antiokian emon eutsen lehenengoz ikasleei ‘kristau’ izena” (Eg 11,26).

Hitzaren lehen entzulea eta zerbitzaria dalako, horrexegaitik dauka abadeak bere lehentasuna sakramentuen eta alkartearen zerbitari izatean.

Izan ere, Jainkoaren Hitza elizkizun guztien bihotzean dago; horregaitik, liturgia, zerbitzu bakoitzak Hitzarekin dauan loturaren arabera antolatzen da. Alkartearen buru eta zerbitzari izatean, abadeak ez dau bere oinarria (sakramentuen) aginpidean aurkitzen, Hitzaren testigu izatean baino.

Misioaren zerbitzaria

Hitzaren zerbitzari izateak sena misiolaria eskatzen dau, bai alkartearen aurrean, bai handik kanpora Jesukristoren barri ez dabenengana edo apenas dabenengana jotean, batez ere behartsuenak kontuan izanik. Abadea ez da Hitzaren jabea, bestetara baino: Hitza da abadearen jabea. Hitza Jainkoarena da.

Hau horrela izanik, abadeak Hitzarekiko lotura estua bilatzera deitua da, eta lotura hori Biblian eta eguneroko bizitzan bilatzen da. Hitzaren aurrean adi egonez, Espiritua doa abadea lantzen, Ebanjelioa iragarreko biderik egokienak erakutsiz.

Ordenako sakramentua emoten jakon egunean esaten jakon bezala, abadeak hausnartu eta sinistu egin behar dau irakurtzen dauana, irakatsi egin behar dau sinistua eta bete irakatsia. Hau da, esaten dauana egin egin behar dau, nahiz eta labur gelditu.

Teologiazko formazioa

Hitzaren zerbitzari izateko, teologia ikasi behar da. Kristau itzaropenaren arrazoiak fededun guztiak emon behar badabe ere (cf 1 Pe 3,15), abadeek are gehiago, guztien sinismenaren zerbitzaria dira eta. Teologiazko hausnarketaren bidez, alkartearen fede bizitza indartu egiten da Hitzaren argitan.

Teologia ikastea ez da abadeen gauza bakarrik, jakina. Baina abadeari ahalik eta prestaketarik egokiena eskatu behar jako teologian, alkarte osoaren eta bere kideen fedeari gaurkotasunez lagundu ahal izateko.

Arlo hau alde batera laga ezker, fundamentalismo edo autoritarismo-rako bideak erraztu besterik ez dira egiten. Teologiak lagundu egiten dau norbere eretxia besteekin osotzen eta zabaltasun handiz jokatzeko. Horrez ganera, fede gaurkotu baten zerbitzari izan eta gaurko gaiak eta ardurak fedearen ikuspegitik argitu nahi dituanak behar-beharrezkoa dau teologiazko prestaketa.

2.2. “Jainkoaren asmo ezkutuen administrariak” (1Ko 4,1)

Sakramentuan zerbitzaria

Sakramentuetan betetzen dan zerbitzu hau oso lotuta doa aurrekoarekin eta gero aitatuko danarekin. Sakramentu guztietan betetzen bada ere, batez ere eukaristian agertzen da indartsuen.

Izan ere, Jainkoaren Hitzak gorputza hartzen dau eukaristian eta bertan parte hartzen dauan alkartean. Hitz hori “elizkizun” bihurtzen da. Sakramentuen zerbitzua Hitzaren zerbitzutik soltean ulertuko balitz, abadea funtzionario edo jauntxo lez agertuko litzateke argi eta garbi. Zerbitzaria izan beharrean, alkarteko agintaria litzateke.

Beste alde batetik, pastoraltzaren azken ardura izateak eta eukaristiaren buru izateak senidetasun handia dabe batak bestearekin, nahiz eta alkarrekin guztiz lotuta egon ez beti.

Batak bestea osotzen dau. Eukaristiaren buru izateak alkartearen buru izatera daroa abadea, Elizak azken gizaldiotan argi eta garbi azpimarratu izan dauanez. Baina, alderantzizko ibilbideari ere eutsi behar jako: alkar-tearen buru izateak eukaristiaren buru izatea eskatzen dau. Elizaren eta abadetzaren hasieran, bigarren logika hau erabili izan zan batez ere. Honak argiago erakusten dau alkar-tearen eragina eta zerikusia abadearen bokazioa aztertu eta zehaztean.

Adiskidetasunaren zerbitzaria, bakegilea

Penitentziako sakramentua ospatzeak ondoren batzuk dakartsez abadeari eta alkar-teari, adiskidetasunaren ezaugarri eta eragile izateko. Jainkoarekin bakeak egiteak bakezale eta bakegile izatera daroaz abadea eta alkar-tea: “Hau guztia Jainkoarengandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu, eta adiskidetzeko zerbitzua geure esku itxi dau eta. Kristoren mandatari gara, beraz, eta Jainkoak berak gure bitartez erregutuko baleutsue lez da. Kristoren izenean eskatzen deutsuegu: egizuez bakeak Jainkoarekin!” (2 Ko 5,18.20).

Abadeak sakramentu bakoitzean bete beharrekoa aitu barik ere, oso egokia da adiskidetasunaren sakramentua bereziki aitatzeari, Elizak Euskal Herrian bakegile izateko bokazioa gero eta argiago ikusten dauan une honetan. Era guztietako biktimen ondoan egonez eta minberatuarekin bide eginez betetzen da batez ere zerbitzu hori, bere zaurien bitartez osatu ginduzan Haren testigu izanik (cf 1 Pe 2,24).

Sakramentu bezala, erakusle eta estaltzaile

Sakramentuak zerbait agertu eta ezkutatu egiten dau beti. Ezaugarria danez, agertzen dauana laburtxo gelditzen da nahitaez. Transzendentziaren zirriborroa da. Abadearen kasuan ere bardin-bardin gertatzen da. Bere hitz eta egiteen bidez, Jesukristo dala alkartearen Zerbitzaria agertu nahi dau, baina hori beti gelditzen da oso labur eta apal.

Ezaugarria (pertsonek bat zein gauza bat izan, bardin da hemen) eta esanahia (Jesukristogan agertzen dan Jainkoaren dohaia), bata besteari begira egon arren, lotura baino askoz handiagoa dan diferentzia dabe alkarren artean.

Jabea barik, administratzailea

Jainkoaren Hitzaren kasuan azaldutakoa gogoratu behar da hemen ere: abadea ez da sakramentuen jabea, zerbitzaria edo administratzailea baino.

Izan ere, sakramentuak Kristok Elizari emondako dohaiak dira. Jesukristo da, hain zuzen ere, lehen ospatzailea liturgian. Sakramentuak Elizaren eta alkarre bakoitzaren eskuetan jarriak izan dira, ahalik eta egokien administratzeko.

2.3. “Larratu egizue Jainkoak zuen esku jarri dauan artaldea” (1 Pe 5,2)

Dimentsio hau ere aurrekoekin lotuta doala azaldu beharrik ez dago honenez gero. Komunioaren zerbitzua dagokio abadeari: alkarrearen barruan, alkarrean artean eta baita gotzainaren ardurapean dagoan tokiko Elizarekin ere.

Alkarrean eta bere aurrean

Atal honen izenburuak “presbiteroak” ditu aurrean eta Artzain Onaren irudia gogoratzen dau. Bereiztu egiten dira behin eta berriz abadea eta alkarrean, bata bestearen parean jarri. Baina horrek ez dau ukatu gura, abadea alkarrearen barruan dagoala era berean, eta ez aparte.

Artzain Onaren jarraitzailea da beste kideen antzera, eta bere zeregina alkartean dagozan beste zerbitzu, karisma eta ministerioekin bat eginda bete behar dau. Alkartean abots asko izan arren, Ebanjelioaren doinua da entzun behar dana, guztien artean abestuta. Horren ardura dauka abadeak, hain zuzen, aniztasuna edo pluraltasuna alkartzearena. Beste modu batera esanda, bokazio desbardinaren eragilea da abadea.

Bidelaguna

Alkarri laguntzea behar beharrezkoa da kristau alkartean. Abadeak bere aldetik, lagundu egin behar dau, jakina, baina bera ere besteen bidelaguna dala jakinik. Alkarte osoaren misioa bultzatu behar dau, baina bera ere besteen fedeari eskerrak bizi dala ahaztu barik. Holantxe betetzen da abadearen zeregina eta bokazioa.

Espiritualitatea, berba gutxitan esateko, kristau izateko “estiloa” dala esan daiteke. Abadearenaren berezitasuna aitatzean, pastoraltzan jartzen da bere abiapuntua, hain zuzen. Bere burua alkartearen eta Eliza osoaren alde emotean aurkitzen dau abadeak bere estiloa. Beretzat horixe da Jesusi jarraitzeko bide berezia.

Egoten ikasi

Artzainak batez ere egoten jakin behar dau. Kopurua beherantz joan ahala, bistan dago abadeak ez dirala lehen beste ikusiko eta ez dirala hain gertu egongo. Horrexegaitik, non eta zelan emon denpora ikasi beharko dau abadeak, Jainko errukiarraren testigu eta maitasunez beteriko harremanak landu ahal izateko.

Hau da, artzain ona (letra txikiz idatzita doana ere) ardiak ezagutzen dituana eta ardiek ezagutzen dabena da. Presaka eta korrika erdi itota bate-tik bestera ibiltzeak ez deutso lasaitasun handirik emoten alkarteari; abadea bera ere ez da horrela gustora bizi eta, azken baten, nekea eta ezina sortzen dira guztiengan.

Aitatasuna

Pastoraltzako lanetan, abadeak zelan edo halango “aitatasuna” bizi dau. Apostoluaren esperientzia hau Paulok adierazten dau argi: “Kristau lez badozue irakasle franko, ez ostera aitarik asko; kristau lez neuk sortu zinduedazan Barri Onaren bidez” (1 Ko 4,15).

Berbok misioari lotuta doaz eta sinesmenaren eta alkartearen sorrerarekin zerikusia dabe. Abadeari “aita” deitzeko ohiturak ere, besteak beste, alderdi hau azaldu nahi eban. Egia da, behin baino sarriagotan aitatasuna “aitakeria” bihurtu dala eta, nahiz eta danok alkarren bidelagun izan kristau bizitzan, paternalismo handiz jokatu izan dala. Hainbat laiko eta moja izan daitezke horren lekuko.

Dana dala, alderdi hau azpimarratu eta indartu beharko litzateke gaurregun, abadea erlijio arloko funtzionario edo pastoraltzako gauzen kudeatzaile bezela ulertzeko arrisku bizia dagoan une honetan. Gestio lanarena baino familia giroaren premia askoz ere handiagoa dauka kristau alkar-teak.

Misiolaria

Abadearen zerbitzua ez dago, beraz, kristau alkarteko kideei begira bakarrik. Ebanjelioa iragartzeko eta bizi ahal izateko esparru barriak bilatu behar ditu behin eta berriro, kultur aldaketa sakonaren kontzientzia bizia dagoan une honetan.

Karl Rahner teologo handiak halantxe adierazten eban premia hau orain hogeita hamar bat urte: “Hemendik lasterrera, parroko edo gotzain bat aukeratu behar izan daitenean, ez litzateke horrenbeste ikusi behar, ea kandidatua Elizaren ohizko funtzionamenduan eragozpen barik integratu dan ala ez, edota ohizko abade portaerari dagokiozan eginbeharrak ondo betetzen dituan ala ez; beste hau hartu beharko litzateke kriterio erabakior lez: ea zer harrera dauan alkartearen ertzean edo handik kanpora dagozanen artean, eta ea ha-reetariko bat edo bi kristau egiteko gauza izan dan”.

Amaitzeko

Gehienetan, abade izan gura dauanak bere burua aurkezten izan dau: “prest nago abade izateko” edo “abade izan gura dot”. Hortik aurrera aztertzen izan da pertsonaren gaitasuna.

Hori oso garrantzitsua eta beharrezkoa izan arren, beste abiapuntu bat ere badago, Elizaren lehenengo gizaldietan gehien erabiltzen zana: alkar-tearen eskabidea. Hau da, alkar-teak eskatu egiten deutso abade izateko, horreta-

rako egoki ikusten dauanari. Beste era batera esateko: hemen aitaturako ezaugarriak betetzen dituan pertsona bat balego alkartean, arduradunak abadetzarako deia luzatu behar izango leuskio.

Abadeak tentsio bat nabaritzen dau bere barruan, bere bokazioa landu eta bizi behar dauanean: kristaua da, alkarteko beste guztiak lez, baina Kristo Artzainaren sakramentu izan behar dau. Tentsio horrek erakusten dau bere bokazioaren berezitasuna Jesusi jarraitzean.

Berezitasun hori maisuki azaldu eban S. Agustinek. Vatikanoko II. Kontzilioak zehatz-mehatz hartu ditu haren berbak, laikoei buruzko atal batean: “Ikara emoten badeust zuentzat nazanak, poztu egiten nau zuekin nazanak. Zuentzat gotzaina naz, baina zuekin kristaua. Izen harek egin behar bat adierazten dau; honek grazia bat. Harek arriskua esan nahi dau; honek salbamena”.

Irakurgaiak:

VATIKANOKO II. KONTZILIOA

- *Lumen gentium - Kontzilioaren Konstituzioa Elizari buruz*
- *Presbyterorum ordinis - Vatikanoko II. Kontzilioaren Dekretua, abadeen ministerio eta bizitzari buruz*

JUAN PAULO II

- *Pastores dabo vobis - Juan Paulo II.aren Sinodo ondorengo agiria (1992)*

IRUINEA-TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZEKO GOTZAINEN PASTORAL IDAZTIA

- *Elizbarrutiko apaizak: premia larria (1991)*

BILBOKO GOTZAINEN KARTA

- *Gazteei, bokazioa dala ta (1983)*

SAKONTZEKO

- Abade izatea Jainkoaren deiari esker onez emondako erantzuna dala ikusten dozu zure inguruan?
- Abadetzarako bokazioa lantzeko ardurarik ikusten dozu kristau alkartee-tan? Zer egin daikee edo egin beharko leukee horretarako alkarteeek?
- Abadea opari edo erregalu lez ikusten da?
- Beste batzuekin bizi eta konpartitu beharreko oparia da abadea:

Elizarekin
Gizadiarekin
Behartsuekin
Misioarekin
Alkartearekin
Beste eliz zerbitzariekin
Beste abadeekin
Gotzainarekin

Aukeratu hiru, zeuk emondako garrantziaren arabera.

- “Gotzain eta abadeei, kristau mezuaren jatortasuna zaindu eta indartzeko ardura emoten jake“: komentatu egizu esaldi hori.
- Zer lotura dozu Jainkoaren Hitzarekin? Zure eguneroko bizitzan, Hitzaren zerbitzari lez ikusten dozu abadea?
- Zelan ikusten dozu alkartearen arduradun eta eukaristiaren buru izatearen arteko lotura?
- Zer laguntza eta laguntasun eskatzen deutsazu abadeari?
- Zertan lagundu deutsu lan honek, abadearen nortasuna eta zeregina ulertu ahal izateko?